

Txirrindulariak

Arreta eta errespetua
Errepidea guztiona da

PERTSONA
HELBURU

COMPROMISO CON
LAS PERSONAS

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

SEGURTASUN SAILA

DEPARTAMENTO DE SEGURIDAD

Vitoria-Gasteiz, 2013ko uztailaren 4a


Gure errepideen eta kaleen erabiltzaileen babesa eta segurtasuna bermatzea da Segurtasun Saileko Trafiko Zuzendaritzaren lehentasunik handienetako bat.

Gure bide-sarean hainbat erabiltzaile daude, hala nola ibilgailu motordunen gidariak, txirrindulariak eta oinezkoak. Horiek guztiek leku bera erabiltzen dute eta leku hori segurtasunari kalte egin diezaioketen ekintzen edo jarreraren menpe dago. Beste alde batetik, gizartean mugikortasun seguru eta egokiaren alde dagoen kontzientzia handiagoak berekin ekarri du bizikleta gero eta gehiago erabiltzea. Horren erakusgarri ere badugu gure herri eta hirietako bide-azpiegiturretan izandako aldaketa, garraiomota hori sustatzeko ahalegin biziak egiten ari baitira. Halaber, gero eta gehiago dira bide-sarea kirola egiteko erabiltzen duten pertsonak (korrikalariak, ibiltariak,...)

“Pertsona helburu”tik abiatuta, gure xedea beti izango da errepideetatik dabiltzanen segurtasuna bermatzea eta, asmo horrekin, lortu beharreko helburu nagusitzat jotzen dugu bide-segurtasuna eta mugikortasun segurua babestea, arreta eta elkarrekiko errespetua oinarri harturik.

Hori guztia dela eta, atsegin handiz jakinarazten dizut zure esku gida hau jarri dugula: "Arreta eta errespetua. Errepidea guztiona da". Gidaren helburua da ohartaraztea eta jakinaraztea zeintzuk diren gidari, txirrindulari edo oinezko gisa euskal errepideak eta kaleak erabiltzean zaindu behar ditugun arauak eta portaerak.

Dokumentazio hori interesgarria irudituko zaizulakoan, jaso ezazu agur bero bat.



ESTEFANÍA BELTRÁN DE HEREDIA ARRÓNIZ
Segurtasuneko sailburua

PERTSONA
HELBURU

COMPROMISO CON
LAS PERSONAS

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO


SEGURTASUN SAILA

DEPARTAMENTO DE SEGURIDAD

Bizikleta gidatzen ari bazara:



Gidatu kontuz eta arretaz eta ez jokatu ausarkeriaz. Errepidean babes-kasko homologatua erabili behar da.



Zirkulazio-arauak ere zuretzat dira. Seinaleak zure segurtasunerako daude jarrita elkargune eta bidegurutzeetan eta gunekritikoetan zirkulazioa zuzentzeko.



Debekatuta dago soinuak hartu eta entzunarazten dituzten aparatuei konektatutako entzungailuak erabiliz gidatzea, baita telefono mugikorra erabiliz ere.



Eguzkia sartzen denetik irten arte edo edozein ordutan tuneletatik, ikuspena gutxituta dagoen egoeretan edo argiak erabili behar direnean, ibiltzeko asmorik baldin baduzu, bizikletak elementu islatzaileak izan beharko ditu eta bere gidariak jantzi islatzaileak eraman beharko ditu gainerako gidariek eta erabiltzaileek ikusteko moduan. Horrez gain, bizikletak gailu hauek izan beharko ditu:



▲ Posizioko argi zuri bat aurrealdean.

▲ Posizioko argi gorri bat atzealdean.

▲ Triangeluarra ez den katadioptriko gorri bat atzealdean.

▲ Katadioptriko horiak gurpilen erradioetan eta, nahi bada, pedaletan.

▲ Bizikletak txirrina izan beharko du, horren bidez gainerako erabiltzaileei bertan zaudela ohartarazi ahal izateko.



Ibilbidea planifikatu nahi baduzu, kontuan izan eguraldi txarra egiten duen eta, batez ere, ez ibili bizikletaz haize-bolada gogorrek iragarrita daudenean.



Zure jokabideak guregan eragina du. Ahal duzun neurrian, erraztu gainerako ibilgailuen maniobrak, batez ere taldean ibiliz gero.



Adeitsua izan. Edozein arrazoiengatik ibilgailu baten gidariaren jarrera gaitzetsi behar duzulakoan bazaude, egizu zentzuz eta iraindu gabe. Jokabide ausartegi bat ikusi baduzu eta salatu nahi baduzu, deitu Ertzaintzari eta ez hartu justizia zeure kontu.






Bidetik oinez edo kirola egiteko korrika doan batekin topo egiten baduzu, ez pasatu harengandik hurbil eta mantsotu abiadura. Jo bizikletako txirrina bertan zaudela abisatzeko eta ohartarazteko.

Maniobrak

Txirrindulariek, gainerako gidarien antzera, bideen beste erabiltzaileei (oinezkoak eta gidariak) behar adinako aurrerapenaz adierazi behar dizkiete egingo dituzten maniobrak. Ohartarazpen horiek besoa sorbaldaren mailan luzatuz egingo dira.


Biraketak

Eskuinetara biratu nahi izanez gero, eskuineko besoa horizontal jar dezakezu eskua beherantz luzatuta edo; bestela, ezkerre altxa dezakezu, baina besoa gorantz okertuta dagoela, era horretan kontrako aldera biratuko duzula adierazteko.



Balaztadak


Bat-batean balaztatu nahi izanez gero, adierazi behar duzu besoa aldizka goitik beherantz mugituz, mugimendu laburrak eta azkarrak eginez.



Noranzko aldaketak

Bi noranzkoetako bidean baimenduta dagoen tokitik ezkerretara biratu nahi izanez gero, norabideak bereizteko luzetarako marrara edo erdibitzailera hurbildu behar duzu eta hori egon ezik, galtzadaren ardatzera, baina kontrako noranzkorako aldean sartu gabe.

Herriz kanpoko bideetan, eta ezkerretara biratzeko erreirik ez badago, txirrindularia eskuinean jarri beharko da, ahal den guztietan galtzadatik kanpo, eta toki horretatik hasiko da bira ematen.



Taldean

Taldean ibiliz gero, txirrindulariak unitate bakartzat hartuko dira.



Taldeko bizikleta-zirkulazioa beti biko ilaratan egingo da, eta kasu hauek gerta daitezke:

Paraleloan zirkulatzeko behar bezalako bazterbidea duen bidea: bizikleta bakarrarentzat baino ez bada, bat bazterbidetik ibiliko da eta haren ezkerraldetik paraleloan beste bizikleta bat, baina beti ahalik eta hurbilen galtzadaren eskuinaldetik.

Bazterbiderik gabe: gehienez biko ilaratan ibili ahalko dira, baina bata bestearen atzetik joan beharko dute ikuspenik gabeko tartetean edo trafiko-samaldak daudenean.


Txirrindulariei jarraipena egiteko taldearekin batera ibilgailu bat badoa, ibilgailu horrek bazterbidetik zirkulatu beharko du.

Beti erne egon zaitez gidatu bitartean. Gogoratu ezusteko batean taldean joanez gero erreakzionatzeko eta maniobrak egiteko ahalmena txikiagoa dela bakarrik joatean baino.



Besteekin izan beharreko harremana

Gogoan izan, bizikleta baten gidaria zaren aldetik, beste edozein ibilgailu bat aurreratzen duzunean, gutxienez 1,5 m-ko tartea gorde behar duzula.



Debekatuta dago bide publikoetan abiadura-lehiaketak egitea, baita beste erabiltzaile batzuek erabil dezaketen lurretan ere.

